

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Miren Bilbatua Bilbatua

*Berriz, Bizkaia
(1922-2018)*

Aurkibidea



Biografia



Sarria auzoko Errotabarrian jaio zen. Mojen komentuko eskolan ibili zen lehenbizi eta geroago Sarriako eskolan. Berrizko antzinako kontuak jasotzeko egin zitzaion elkarrizketa 2006an.

Zintak

BRZ-057

- **Proiektua:** Antxinako Berriz. Bizimodua eta ohiturak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gerenabarrena, Maite
- **Data:** 2006-01-01
- **Iraupena:** 61 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Emalea:** Gerenabarrena, Maite

Pasarteak

1. Sarriako eskola Errepublika sasoikoa

- **Erref:** BRZ-057/002
- **Iraupena:** 0:00:25. **Hasi:** 00:20:37. **Bukatu:** 00:21:02

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurrea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Sarriako eskola Errepublika sasoian Aldundiak egindako Bizkaiko lehen auzo-eskola izan zen. Lehenengo urtean bera komentuan ibili zen.

2. Lehenengo komentuan eta gero Sarriako eskolan

- **Erref:** BRZ-057/004
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:21:18. **Bukatu:** 00:23:58

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak

Laburpena:

6-7 urterekin komentuko eskolan hasi zen mojekin. Baina urtebetez itxi egin zuten eta, nahiz eta gero berriz martxan hasi, Sarriako eskolan hasi zen gero. Maistra oso gogorra zen, jo egiten zuen. Gaztelaniaz egiten zuten eskolan, ikastearren, gaztelaniaz ez zekiten eta. Jesusa Arregi maistra eibartarra, eskola irakasten ona. Lezioak koadernoetan izaten zituzten.

3. Errepublika sasoian Aldundiak egindako eskolak

- **Erref:** BRZ-057/006
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:24:07. **Bukatu:** 00:25:01

Gaia(k):

- Politika » Gerra aurea » 1931-1936: II. Errepublika
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Sarria auzoa. Eskola egin aurretik, bertako umeak komentura, Andikoara edo Garaira joaten ziren eskolara. Errepublika sasoian Aldundiak egin zuen lehen auzo-eskola izan zen Sarriakoa. Berrizen antzeko eskola gehiago egin zituzten gero (Uriben, esaterako) eta baita beste herrietan ere. Andikoako eskola lehenagokoa zen.

4. Sarriako errotak; Patala

- **Erref:** BRZ-057/008
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:25:14. **Bukatu:** 00:26:53

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Errota

Laburpena:

Sarria auzoko errotak. Patalan "Makinetxie" edo turbina zegoen, argindarra egiteko.

5. Arrierrekako errotak; Errotabarrian jaioa

- **Erref:** BRZ-057/010
- **Iraupena:** 0:02:18. **Hasi:** 00:27:10. **Bukatu:** 00:29:28

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura
- Baserria » Baserriko lanak » Errota
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

Sarria auzoko errotak. Errotatxun "makinetxie" zegoen, etxeetara argia emateko. Errotabarria, bere jaiotetxea. Etxea ez zen beraiena eta gerra ostean nagusiak handik irtenarazi zituen, etxea berak behar zuelako. Beste errota batzuk: Bolunzar, Ugarteko errota... Errotetan, Olazarren eta Olabarrin turbinak zeuden. Anporta eta Ezterripa. Arrierrekak aberastasun handia zuen. Non sortzen zen.

6. Gerra sasoiko bizipenak

- **Erref:** BRZ-057/012
- **Iraupena:** 0:01:33. **Hasi:** 00:30:54. **Bukatu:** 00:32:27

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Errepresioa
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka

Laburpena:

Gerra sasoiaren ez zuten goserik pasa, taloa behintzat izaten zuten eta. Durangoko bonbardaketa ikusi zuen. Anaia nagusia eta koinatua gerran ibili ziren. Bera etxean geratu zen gurasoekin. Koinatua Santoñan preso egon zen.

7. Hildakoari abitua janzten zitzaion

- **Erref:** BRZ-057/015
- **Iraupena:** 0:02:07. **Hasi:** 00:35:20. **Bukatu:** 00:37:27

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Norbait hiltzen zenean, komentutik eramaten zen abitua, hildakoari janzteko. Hilakutxa oihaltzarekin forratzen zen. Auzokoek gaubeila egiten zuten. Hiletak Berrizko elizan egiten ziren eta hildakoak lepoan eramaten ziren.

8. Luto sasoiaren igandero meza nagusira

- **Erref:** BRZ-057/018
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:39:45. **Bukatu:** 00:40:22

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Hiletak

Laburpena:

Elizako jarlekuan zapi zuria eta gainean zapi beltza jartzen zen eta haren gainean argimutilla kandleekin. Igandero meza nagusira joan behar izaten zen, lutoak irauten zuen bitartean.

9. Benito soinu-jotzailea; Erromeria Sarrian; bolatokia

- **Erref:** BRZ-057/024
- **Iraupena:** 0:01:43. **Hasi:** 00:44:47. **Bukatu:** 00:46:30

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

Benito soinu-jotzailea ibiltzen zen gerraostean erromerian jotzen. Miren umea zenean, Sarrian bertan egiten zen erromeria domeketan. Bolatokia ere bazegoen eta mutil gazteak bertan elkartzen ziren.

10. Haragitara Olakuetara

- **Erref:** BRZ-057/027
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:48:22. **Bukatu:** 00:49:10

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Lanbideak » Negozioak, dendak

Laburpena:

Olakuetara gutxitan joaten ziren. Haragitara bai, harategira. Saltzaileak ibiltzen ziren baserrietan. Arrain-saltzaileak kalean ibiltzen ziren, baina normalean ez ziren baserrietara joaten.

11. Areetan neskame; etxejabeak

- **Erref:** BRZ-057/029
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 00:49:49. **Bukatu:** 00:51:31

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Neskameak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Gabon inguruan etxejabeari oilaskoak edo beste gai batzuk ematen zitzaizkion. Miren 22 urtetik 30era Areetan egon zen neskame. Hango nagusiek baserri asko zituzten Zornotza inguruan eta gogoan du astero jasotzen zituztela oilaskoak. Egurra eta baba gorria ere bai. Sei neskame egoten ziren. 100 pezeta irabazten zituen.

12. Hainbat ospakizunen inguruko kontuak

- **Erref:** BRZ-057/034
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:58:09. **Bukatu:** 00:59:39

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak
- Aisia » Kultura » Dantza
- Aisia » Jai-giroa » Santa Ageda

Laburpena:

Santa Ageda eta Eguen zuri, baserririk baserri batzen. Eskolako mutikoak ibiltzen ziren. Gabon zahar egunean egiten ziren bihurrikeriak. Kandelario eguna Andikoako jaia izaten zen. Egun horretan Andikoakoei aurraskua eta

Sarrikoei atzeskua tokatzen zitzaien; Asentzio egunean, alderantziz. Dantza taldea.

Bilbatua Bilbatua, Miren | ahotsak.eus Orr.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com